



Idazmena

Egoera

DeustoForum Deustuko Unibertsitatearen hausnarketa eta eztabaidarako gunea da, ideien analisia eta eztabaida zabaltzea helburu duena. Forum horretan, unibertsitatetik kanpoko pertsona kualifikatuak parte hartzen dute, gaiak zorroztasun akademikoaz eta era kritikoan jorratuz.

Jaso berri duzu Deustuko Unibertsitatetik zeuk landutako gaiari buruzko hitzaldia emateko gonbita. Gonbidapenari baiezkoa eman ondoren, hitzaldiaren laburpena igortzeko eskatu dizu Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzuak, egitasmoaren hedapenari begira, hitzaldiaren bideoa eskegiko baitute webgunean, baita hitzaldiaren laburpen idatzia ere.

Egitekoa

Idatzi zeuk landutako gaiari buruzko **hitzaldiaren laburpena**; eman gaiari buruzko informazio esanguratsua eta gaiari buruz dituzun iritzi eta argudioak.

Gutxieneko luzera: 350 hitz.

Proposaturiko denbora: bi ordu eta hogeit minutu.

Ebaluazio-irizpideak

C2 mailarako helburuak kontuan hartuta, idazlana zuzentzeko irizpideak:

Egokitasuna

Eskatutako gai, solaskide eta xedearen araberrako lotura. Solaskideen harreman-motari eta xedeari dagokion tonua. Lexikoaren modalizazioa.

Koherentzia

Idea nagusien eta lagungarrien hari logikoa. Diskurtsoaren egitura, garapena eta hurrenkera logikoa. Ideien osotasuna.

Kohesioa

Esaldi, paragrafo eta testu osoa elkarlotzeko testu-antolatzaileen erabilera eraginkorra. Puntuazio-sistema. Kohesio-mekanismoen erabilera: anafarak, ordezkapenak, elipsiak.

Aberastasuna

Hizkuntz baliabideen ugartitasuna eta barietatea. Esaldi landuen eta horien baliokideen erabilera. Ordezkapen lexikalen erabilera.

Zuzentasuna

Gramatika-arauen erabilera zuzena: ortografia, deklinabidea, aditza, morfologia, sintaxia... Gaiari loturiko lexikoa.